

Minutu bateko intziria

Amagoia
MUJIKA TELLERIA

Isiluneak egiten ditugu gizonek akabatutako emakumeen omenez. Isiltasuna, nahiz eta badakigun minutu horretan ezin direla kabitut zainetan lehertzen zaizkigun amorrua, mina, hase-
rrea, tristura, ezina, nekea. Isiltasuna, ez da-
goelako isiltasun hori onduko duen hitzik.

Berez garrasi eta intziri egiteko gogoa daukagu, baina isilik geratzen gara minu-
tu batez, barruraka bilduta, azken krimen
matxistak eman digun astindua asimilatu nahian. Ostia! Nahikoa da, ez-
ta? Minutu batez segidan intziri egiteko
gogoa pizten zait gero eta maizago.

Aitak ama labanaz nola hil duen ikusi
dute hiru haurrek eta aitak ibaira bota

nahi dituela konturatu dira, ama bezala
akabatzeko. Haur batek alde egitea lortu
du, eta laguntza eskatzea. Polizia, gizar-
te langileak, psikologoak, galderak. Eta
ama falta. Eta aitak beraiek ere akabatu
nahi zituen, errekan itota. Ipuinetako
otsoa zuten etxean, sofan eta sukaldeko
mahaian alboan eserita. Otxoa etxean.

Aitak ama akabatu du sukaldeko laba-
naz, eta gero bere buruari lepoa moztu
dio, hamabi urteko semearen aurrean. Su-
kaldeko labanaz bi bizitza, amak ba-
nandu egin nahi zuelako. Eta aitak
nahiago zuen ama hila, banandua
baino. Polizia, gizarte langileak, psikolo-
goak, galderak. Eta ama falta. Ostirale-

tan pizza mozteko erabiltzen zuten la-
banaz akabatuko zuen agian aitak ama.
Otxoa etxean.

Nahikoa da. Hau jasanezina da. Minu-
tuko isiluneetatik aparte, zerbait gehia-
go egin beharko da. Inguruan ditugun
otsoetan eta sortzen diren otsokumee-
tan jarri beharko da arreta.

Baina garbi dago minutuko isilunee-
tan biktimaz barre egiten duten politi-
kariak ez dutela ezer konponduko. He-
rriak eraiki behar du matxismoa eta
faxismoa geratzeko pareta egunero, bai-
ta uztailaren 23an ere. Hobeto edo oke-
rrago bizitzea omen dago jokoan. Ema-
kume askorentzat, bizitzea bera. •

Eremu askeak aske

Koldo SAGASTI

Oharkabeen uda betean murgil-
du gara, eta horrekin batera,
eztanda egin dute han-hemen-
ka auzo eta herrietako jaiek.
Tokian tokiko egitarau ofizialen au-
rrean, herri mugimenduak hamarkadak
daramatza festa eskaintza alternatiboak
antolatzen txosna esparruen inguruan.
Txosnaguneak gure herrietako ospaki-
zunetako berezko ezaugarria dira. Ber-
tan asmatu dugu uztartzen parranda
eta borroka. Txosnak festa gune liberta-
rio eta libertinoena izateaz gain, herri
mugimenduaren bozgorailu eta erakus-
leiho ere izan dira; belaunaldi berrien-
tzat hasierako esperientzia militantea
izan dira, eta ez hori bakarrik, hamaika
borroketako ezinbesteko sostengu eko-
nomikoa ere bai. Horretaz jakitun, aka-

so, erakundeak askatasun esparru ho-
riek arautzen saiatu izan dira beti, eta
azken urteotan ataka handia planteatu
zaie herri askotako jai batzordeei, legea-
ren inperioak ezarritako arrastoan sartu
eta, baldintza batzuk gorabehera,
proiektuaren biziraupena bermatzeko
eta, koherentzia politikoari eutsita, le-
gearen inperioarekin talka egiteko.

Gasteizen duela urte batzuk egin zen
lehenengo aukeraren aldeko hautua.
Txosna batzordeak Udalak ezarritako
baldintzei men egin, eta jai alternati-
boen esparrua erdigunetik aldentzea
onartu zuen. Horrela, erakundeek lortu
zuten matxinada foku hori hirigunetik
atera eta ghetto bihurtzea, bertara pro-
pio joaten direnen autokontsumorako.
Txosnek, aldiz, iraunkortasun bermea

lortu zuten, bai, baina jaiaren erdigu-
nearekiko lotura eta parte hartzea gal-
tzearen truke.

Iazko jaietatik hona, baina, bere izaera
eta geroa kolokan jar dezakeen erronka
berria planteatu zaio Gasteizko txosna
batzordeari; jai esparru alternatiboan
parte hartzeko aukera ukatu baitie bi
eragileri. Ez dakit zer barne gatazkak
eragingo zuen erabaki hori, ez dakit ko-
lektibo baztertuak ere politikoki oso
koherenteak izango ote diren txosnen
sortzezko izpiritu libertarioarekin, bai-
na nago desadostasun politikoengatik
taldeak baztertzeko galera ekarriko dio-
la behinola jatorri eta ildo politikoetako
eragile anitzen topagunea izan zen eki-
menari, eta gero eta gutxiago izango
duela esparru asketik. •